

MUNIBE (Ciencias Naturales - Natur Zientziak)	Nº 50	113 - 114	SAN SEBASTIAN	1998	ISSN 0214-7688
-----------------------------------------------	-------	-----------	---------------	------	----------------

Gipuzkoan gutxi ezagutzen diren hainbat ugaztunen aipamenak

Records of some little known mammals in Gipuzkoa

M. OLANO *
T. AIERBE *

SARRERA

Gipuzkoako ugaztunen lehen bilduma Ornodunen Atlasean argitaratu zen (ÁLVAREZ & *al.*, 1985). baina atera berria den lanean (ÁLVAREZ & *al.*, 1998) ez da ugaztunen datu berririk ageri. Hori dela eta, azken urte hauetan Gipuzkoan zehar hainbat datu berri ezagutzeko aukera izan dugunez, aipagarrienak iruditu zaizkigunak azaldu ditugu hemen.

Espezie bakoitzak, Autonomia Erkidegoan zer nolako babes maila duen; non eta noiz aurkitu den eta behatzaileak nortzuk izan diren aipatzeaz gain, espezie bakoitzaren azalpenak ematen dira.

Lekua: Eskoriatza, Alabita, 30TWN45, txilardia (Erica arborea)

Data: 1996-IV-26.

Behatzaileak: Mikel Olano.

Azalpenak: Lehendabizikoan, errepidean kotxeak harrapatuta, berehala hil egin zitzaigun. Eskoriatzakoan berriz, erleak dituen baserritar batek, ezta jaten ziotela eta, zepoa jarri eta harrapatu zuen lehenengo; Arrano-Etxean sendatzen saiatu ziren arren, hil egin zen. Hau ikusirik, bizirik harrapatzeko tranpa jarri eta beste bi lepahori erori ziren eta berriro inguru horretan askatu genituen.

Martes martes L.

Lepahoria. Marta.
Babes maila: Bakana.

Lekua: Idiazabal, Etxegarateko mendatea, 30TWN65, baso mistoak eta pinudiak.

Data: 1996-VIII-16.

Behatzaileak: Mikel Olano, Agustin Urteaga.

Lekua: Eskoriatza, 30TWN36, zuhaitzien (pagadi-pinudiak) eta landazabalen artean

Data: 1999-I-7, 1999-I-15, 1999-I-18.

Behatzaileak: Fermin Lezeta, Tomas Aierbe eta Mikel Olano.

Lekua: Partzoneria, 30WN55, pagadia.

Data: 1999-IV-14.

Behatzaileak: Alejandro Gracia, Tomas Ibarra.

Mustela lutreola L.

Bisoi europarra. Visón europeo.

Babes maila: Kaltebera.

Lekua: Lazkao eta Ataun, Agauntza ibaia, 30TWN66, 30WN65.

Data: 1995-V-21 eta 1998-XI-08.

Lekua: Beasain-Ormaiztegi, Estanda ibaia, 30TWN66.

Data: 1997-XI-14.

Lekua: Segura, Oria ibaia, 30WN55.

Data: 1998-V-25.

Behatzaileak: Peio Zeberio, Tomas Aierbe eta Mikel Olano.

Azalpenak: Lehendabizikoa, Lazkaoko fraideek tranpa batean harrapatu zuten bizirik; ibai berean gogo askatu genuen. Ataungoa berriz, kotxe batek bota zuen. Estanda ibaiko txakur batzuk hil egin zuten eta Segurako kasuan, baserritar batzuk ibai ertzean lanean zebiltzala, bisoi kume bat atxurrez hil zuten.

Mustela putorius L.

Ipurtatsa. Turón.

Babes maila: Interes berezikoa.*Lekua*: Zegama, 30TWN55.*Data*: 1995-VIII-30, 1998-II-17 eta 1999-III-21.*Behatzaileak*: Angel Irigoras, Tomas Aierbe eta Mikel Olano.

Azalpenak: Lehendabizikoa eta hirugarrena, Otzaurteko errepidean hilik azaldu ziren, kotxeak harapatuta. Bigarrena berriz, Zegaman bertan, Oria ibai ertzean hilik azaldu zen.

Galemys pirenaicus Geoffroy

Muturluze piriniarra. Desmán.

Babes maila: Interes berezikoa.*Lekua*: Leitzaran ibaia, 30TWN87*Data*: 1993-IX-29 eta 1994-VII-11.*Lekua*: Ataun, Agauntza ibaia, 30TWN65.*Data*: 19963-IX-15.*Behatzaileak*: Esteban Iriarte, Tomas Ibarra eta Mikel Olano.

Azalpenak: Leitzaran ibaian, karramarroen laginketarako nasetan hiru muturluze sartu ziren; beste bat, arrantza elektrikoa kanal batean egiten ari ginala atera zen. Agauntza ibaian ere arrantza elektrikoakin atera zen.

Glis glis L.

Muxar grisa. Lirón gris.

Babes maila: Kaltebera.*Lekua*: Aizkorri, 30TWN55.*Data*: 1995-V-25.*Lekua*: Altzo, 30TWN77.*Data*: 1996-VII-27.*Behatzaileak*: Mikel Olano.

Azalpenak: Aizkorri aldeko borda batean 6 ume aurkitu zituzten eta, jaso ondoren, inguru horretan askatu genituen. Altzon berriz, haritzetan jarrita genuen habi-kaxa batean hiru muxar sartu ziren eta egun batzuk pasatu bazituzten ere ez ziran negua pasatzen geratu.

Felis sylvestris Schreber

Basakatua. Gato montés.

Babes maila: Interes berezikoa.*Lekua*: Oiartzun-Errenteri, 30TWN98, harizti-pagadia.*Data*: 1995-XI-03.*Lekua*: Oiartzun, Zaldin, 30TWN99, pagadiz inguratutako zelaia.*Data*: 1996-I-22.*Lekua*: Partzoneria, Altzani, 30TWN65, txilar-otadia pagadiz inguratuta.*Data*: 1997-II-03.*Lekua*: Enirio-Aralar, Oidui, 30TWN76, otadiak elorriekin.*Data*: 1997-XII-26.*Lekua*: Partzoneria, 30TWN55, pagadia.*Data*: 1999-IV-29.*Behatzaileak*: Iñaki Aizpuru, Tomas Ibarra, Mikel Zarautz eta Mikel Olano.

Azalpenak: Lehenengoa, egun argiz pista bat gurutzatzen ikusi zen. Bigarrena, erbi haztegi baten zepoan harapatu zen. Hirugarrena bizitarako tranpa batean harapatua eta Aralarkoa gaueko lana egitean ikusi ahal izan genuen. Azkenekoa berriz, basoan gindoazela pago-motz baten zulotik atera zitzaigun.

ESKERRONAK

Gipuzkoako ugaztunen ezagutza zabaltzen eman diguten laguntzagatik, behatzaile bezala aipatun ditugun guztiei eta gurekin batera mendian ibili den hainbat adiskideri gure eskerrak eman nahi dizkiegu.

BIBLIOGRAFIA

ÁLVAREZ, J., A. BEA, J.M. FAUS,
E. CASTIÉN & I. MENDIOLA

1985 *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ornodun Kontinentalen Atlas*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

ÁLVAREZ, A. & al.

1998 *Vertebrados continentales. Situación actual en la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.